EROSKI zurekin





# 2018ko Memoria

Sartu hemen 2018ko memoria ikusteko: memoria.eroski.es/eu

## 2018an jarraitzen dugu...

...gure plan estrategikoa bultzatzen, eta, beraz, **gure izaera bereizgarria** jorratzen eta **osasunaren eta iraunkortasunaren** aldeko **10** konpromisoei heltzen, horrek markatuko baitu gure bidea.

...gure **lidergoa** indartzen "zurekin" eredu komertzialarekin eta Iparraldean dugun sarearen **eraldaketarekin**.

...etengabe **eboluzioan** den kontsumitzailearen premiei erantzuten.

**1.652**
saltoki

**58**
irekiera berri

**7.275**
erreferentzia, marka propiokoak, 201 produktu berrirekin.

**+6**
milioi Bazkide Bezero

**5.393**
milioi euroko fakturazioa

**4.698**
milioi euroko salmenta garbiak banaketan

**saria**
Urteko **on line** supermerkaturik onenaren saria




**490**
**milioi euro**
EROSKIko langileen ordainsarietan

**4.013**
**milioi euro**
gure hornitzaileei egindako erosketetan

**17**
**milioi euro**
ingurumena babestu eta hobetzeko

**10**
**milioi euro**
gizarte helburuetarako eta kontsumitzaileen formazioko

## Gure aberastasuna gure ingurunearena ere bada

EROSKIk bere enpresa jardueraren bitartez sorrarazitako aberastasuna berriz itzultzen da gizartera, zeinak kooperatibako Bazkide Langileen eta gure balio kateko eragile askotarikoen artean eragiten baitu.

10 konpromiso
osasungarriak
jasangarriak

### 1

## Elikagaien segurtasunean inplikatzen gara

Konpromisoa hartua dugu gure denda, instalazio eta produktuetako elikagaien segurtasunarekin; horregatik, kalitate eta segurtasun estandarrak zorrotz aplikatzea da gure jardueraren oinarrizko zutabeetako bat.

**17.902**
analitika produktuei

**294**
ikuskaritza marka propioko hornitzaileen ekoizguneei

**1.313**
ikuskaritza saltokietan eta plataforma logistikoetan




NUTRI-SCORE A B C D E

**aurrendariak**
gara **Nutri-Score** etiketa ipintzen; nutrizio arloko informazio aurreratua da, eta hobeto jaten laguntzen du.

**2013tik hona,**

- **946.177 kg** gantz,
- **483.709 kg** azukre eta
- **68.276 kg** gatz

kendu ditugu gure produktuetatik.

### 2

## Elikadura orekatua sustatzen dugu

Elikadura orekatu bat egiteko behar den janariaren kontsumoa sustatzen dugu, eta gure markako produktuak etengabe hobetzen ditugu nutrizio aldetik.

### 3

## Haurren gizentasunari aurrea hartzen diogu

Haurren gizentasunari aurrea hartzen diogu elikadura orekatu batekin, haurrentzako produktuak birformulatuta, elikadura osasungarriagoak eskuragarri jarrita eta haurren eta haien familien formazioa era proaktiboan bultzatuta.

**Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programak hastapenetik:**

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeen **29%k** parte hartu dute
- **869.411** ikasle formatu ditu



**saria**
"**2018ko ekimenik onenaren saria**" enpresa arloan, Nutrizioaren Espainiako Akademiak emana.

**3.000**
glutenik gabeko produktu, horietatik

**541**
marka propiokoak

**akordio berriak**
sinatu ditugu 2018an zeliakoen elkarteekin



### 4

## Nutrizio premia espezifikoei erantzuten diegu

Beren osasunagatik behar espezifikoak dituztenen eguneroko elikadurarako beharrezkoak diren produktuak ditugu, baita elikadura sano eta iraunkorrarekin bateragarriak diren bizitzako etapetarako eta bizi estiloetarako.

### 5

## Kontsumo arduratsua egiten laguntzen dugu

Erraztu egiten dugu modu osasungarrian elikatzea, eta murriztu egiten dugu gure prozesuek, dendek eta produktuek ingurumenean duten eragina. Gainera, produktu ekologikoak eta prozesu iraunkorragoen bidez ekoitziak izan direnak sustatzen ditugu, gehigarri artifizialak gutxitzearen alde dihardugu eta animalien ongizatea bilatzen dugu.

**5.000**
tona elikagai eman ditugu dohaintzan, 9.747 dieta pertsonalen parekoa

**+43.000**
tona hondakin birziklatu nahiz balorizatu egiten ditugu ekonomia zirkularraren printzipioak beteta

Espainiako lehen banaketa katea gara bi ikuskaritza hauek gainditu dituena: arrain freskoaren zaintza kateaz arduratzen den **MSC® ziurtagiriarena** eta akuikulturako **Global G.A.P ziurtagiriarena**

**saria**
AECOCen **Lean&Green** saria gure $CO_2$ igorpenak gutxitzeko.

**4.200**
hornitzaile komertzial

**2.493**
ekoizle lokal txiki eta enpresa ertain

**21.352**
erreferentzia, tokian tokiko produktuena




### 6

## Tokian tokiko produktu gehiago eskaintzen ditugu

Tokian tokiko produktuen kontsumoa bultzatzen dugu, eta eragile aktiboak gara guk dihardugun ingurunearen garapen sozial eta ekonomikoan.

### 7

## Ongi eta merke jatea errazten dugu

Elikadura orekatu eta iraunkor bat prezio onean eskaintzeko behar diren produktuak ditugu, eta aurrezpen pertsonalak egiten dizkiegu bizimodu osasungarri eta iraunkor batean inplikaturik diren bezeroei.

**302**
**milioi** euroko aurrezkia transferitu diegu gure bezeroei, eskaintza pertsonalen, kanpainen eta sustapenen bidez

**Salmenten**
**+%70**
Bazkide Bezeroei egiten zaizkie

**253**
aurrezpen handiko kanpaina

**1,4**
**milioi opari eta bidaia** Travel Cluben puntuekin



**413.499**
kontsultari erantzun dio gure Bezeroari Erantzuteko Zerbitzuak

**13.000**
Bazkide Bezerok parte hartu dute, beren ideiekin gure eskaintza komerziala eta gure dendak hobetzeko



**saria**
**Bezeroarentzako arretarik onena** zazpigarren urtez jarraian

### 8

## Entzun egiten dugu, eta garbi eta garden jokatzen dugu

Argitasunaren, gardentasunaren eta entzutearen printzipioetan oinarrituko dugu gure komunikazioa gure bazkideekin, bezeroekin, kontsumitzaileekin eta beste interes talde batzuekin.

### 9

## Langile gisa arduratzen gara

Langileak trebatzen ditugu osasunaren, ongizatearen eta iraunkortasunaren sustapenean, eta horrek berak beren bizi kalitatea hobetzen du eta aldi berean bazkideei, bezeroei eta kontsumitzaileei arreta hobea ematen diete.

**30.048**
langile EROSKI Taldean

**+3.300**
enplegu frankizietan

**9.796**
bazkide kooperatibista

**%71**
emakumezko dira erantzukizuneko postuetan

**Prestakuntzan inbertituak:**

- **207.000** ordu
- **1,7** milioi euro

**+50**
milioi bisita **www.consumer.es** webgunean

**193.000**
irakurle ditu hilean **EROSKI CONSUMER** aldizkariak




**saria**
Enpresa Ekimenik onenaren **NAOS** saria eman diote gure nutrizio arloko txosten pertsonalizatuari, doakoa bera

### 10

## Bizimodu osasungarriagoa bultzatzen dugu

Kontsumitzaileak prestatzen ditugu bizimodu osasungarria eta iraunkorra errazteko, nola eta egiazko informazioa dakarten produktu independente, praktiko eta arinak eskainita, eta era aktiboan lagunduta beren erosketetan osasuna eta iraunkortasuna hobetzen.